

**EVA  
FERREIRA  
GARCÍA  
HAUTAGAIA**

# **HAUTESKUNDE PROGRAMA**

**2021  
2024**



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea


# **ERREKTORETZARAKO PROGRAMA 2021 - 2024**

<b>SARRERA</b> .....	<b>3</b>
<i>UPV/EHU 1980-2020</i> .....	3
<i>2020 urteko egoera</i> .....	4
<b>SENTIMENDUAK ETA PERTZEPZIOAK</b> .....	<b>6</b>
<b>2021-2024 PROGRAMARAKO GAKOAK</b> .....	<b>7</b>
<b>ARDATZEN GARAPENA</b> .....	<b>14</b>
<i>PRESTAKUNTZA</i> .....	14
<i>IKERKETA ETA EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA</i> .....	17
<i>KULTURA ETA GIZARTEA</i> .....	20
<i>PERTSONAK</i> .....	23
<i>GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK</i> .....	26

**“Ikur bat egiteko eskatu zidaten, eta egin nuen:  
zuhaitz bat. Zuhaitz bat eta haren fruitua. Hori da  
ideia.**

**Eman ta zabal zazu”**

Eduardo Chillida, eskultorea, Donostia, 1924-2002, *“Elogio  
del Horizonte. Conversaciones con Eduardo Chillida”*



## **UPV/EHU 1980-2020**

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), 1980an sortua, Unibertsitate publikoa da, ikertzailea, ezagutza sortzearen eta gizarteari transmititzearen aldeko apustua egiten duena, bere sustraiekin bat datorren nazioartekotze-prozesu baten baitan. UPV/EHUren xedeen ikur da Eduardo Chillida artistak sortutako logotipoa, goiburutzat Jose Maria Iparragirrereren “Gernikako arbola” abestiaren *eman ta zabal zazu (munduan fruitua)* bertsoa duena.

Euskal Unibertsitate gaztea, lehen urteetan, testuinguru politiko eta sozial korapilatsu eta aldakorrean taxutu zen. Unibertsitate publiko eta jeneralista horrek, duela mende erdi, unibertsitateko hezkuntza jasotzeko aukera eman zion gizartearen zati handi bati, bestela hezkuntza eskura izango ez lukeena. Lehen hamarkada haietan, euskal unibertsitatearen zeregin nagusia gure gizartearen giza kapital unibertsitarioa prestatzea izan zen, eta gizartearen hazkunde ekonomiko eta kulturala, aukera-berdintasuna eta gaitasun kritikoa areagotzen lagundu zuen. Azken batean, Euskadiko bizi-maila hobetzen.

Halaber, irakasle askok irakaskuntza-jarduera eta doktorego-tesia uztartu behar izan zituzten, artean ikerketa-egitura sendorik ez zegoen ingurune batean. Izan ere, irakasle horiek sortu, finkatu eta egonkortu egin behar izan zituzten egiturak. XXI. mendeko unibertsitateko irakasleen bilakaerak erakusten du karrera profesional nagusia eta lehentasunezkoa irakaskuntzan eta ikerkuntzan oinarrituta dagoela.

Unibertsitatea sortu zenetik, eta azken urteotan bereziki, nabarmen aldatu dira informazioaren eskuragarritasuna, ezagutza sortzeko eta emateko modua, teknologia digitalak, lan-merkatua eta autoenplegua, ikaslearen profila eta gizartea, oro har. Ekonomiaren eta gizartearen digitalizazioak ere ondorioak izan ditu unibertsitatean. Irakaskuntzaren arloan, Boloniako prozesuak eraginda, prestakuntza-planak eta irakaskuntza-metodologiak aldatu behar izan ditugu. Ikerkuntzan, gaiak jorratzeko ikuspuntuak aldatu dira, bai eta ikertzeko modua ere. Antzeko zerbait gertatu da ezagutza transferitzeari eta gizarteari zabaltzeari dagokienez; izan ere, nahiz eta hori gure Unibertsitatearen eginkizunetako bat izan beti, azkartu, dinamizatu, aintzat hartu eta neurtu nahi izan da azken urteotan. Unibertsitateko jarduera arautzen duen araudia ere aldatu egin da, eta baliabide digitaletara eta gardentasuneko eta gizarteari kontuak emateko estandar handiagoetara egokitu. Horren adibide dira tituluak egiaztatzeko sistema edo ikerketa-proiektuak konfiguratzeko eta kudeatzeko modua.

Egiten duguna eta hori egiteko modua aldatu egin dira, eta goitik behera aldatu da irakasle eta ikertzaileen eta Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren (AZP) lan egiteko modua, baita ikasle bakoitzaren ikasteko moduak ere.

## **2020 urteko egoera**

Gure Unibertsitatea Boloniako Planera egokitze prozesua askoz ere zuhurragoa izan da eskainitako gradu eta graduondoko tituluaren kopuruan, beste unibertsitate batzuekin alderatuta. Docentiaz programa egiaztatuta eta zabal ezarrita dago. Bestalde, ikasleek oso balorazio ona ematen diote irakasleen irakaskuntza-jarduerari, eta kalifikazio horrek bere horretan jarraitu

du 2019-2020 ikasturte korapilatsuan. Gainera, nazioartekotzeari eta eskaintza dualari buruzko datuak oso onak dira.

Euskal Herriko Unibertsitatea Shanghaiko rankingeko lehen 400 unibertsitateetako bat da, eta ikerketa-talde sendoak eta punta-puntakoak ditu ezagutzaren arlo guztietan. Aliantza sendoak egin dira enpresekin, erakundeekin, ikerketa-zentroekin eta beste unibertsitate batzuekin. Hona hemen horren adibide on batzuk: Euskampus fundazioaren esparruan garatu diren *Join Research Lab* (JRL) direlakoak eta ENLIGHT partzuergoa (Europako beste zortzi unibertsitateekin batera hartzen dugu parte horretan).

Ezagutzaren komunikazioa eta dibulgazioa sendotu egin dira, eta eragin sozialeko kontratuak eta proiektuak egiten dira eragile ekonomiko, sozial eta kulturalekin. Unibertsitatearen pertzepzio soziala positiboa da; izan ere, erakunde baloratuena da, 2019an egindako Euskal Soziometroaren arabera.

COVID-19ak eragindako pandemiak jarduera akademikoaren esparru guztietan izan du eragina. Testuinguru zail batean, 2019-2020 ikasturtea behar bezala burutu zen, irakasle eta ikertzaileen, ikasleen, eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen erabateko konpromisoarekin. Prestakuntzari dagokionez, ikasleen pertzepzioa guztiz positiboa izan da. Ikerkuntzan eta komunikazioan, gure unibertsitateak bere ezagutza guztia eman dio gizarteari, pandemia hau ezagutzeko eta behar bezala aurre egiteko, bai osasun-arloan, bai hezkuntza-, ekonomia- eta gizarte-ondorioei begira. Gizarteak eskatzen zuen maila eman dugu. Halaber, 2020-2021 ikasturtearen hasieran, gure Unibertsitatea erresilientzia handia erakusten ari da, kalitatezko prestakuntzari eutsiz eta pandemiaren ondoriozko egoerara egokituz.

Egiten ditugun jarduera guztietan, Unibertsitateak hobera egiten duela adierazten duten datu objektiboak sendoak dira.





Antonio Fraguas, "Forges",  
umorista, Madril, 1942-2018

## SENTIMENDUAK ETA PERTZEPZIOAK

Aurrekoa gorabehera, unibertsitate-komunitatea osatzen duten pertsonen pertzepzioa ez dator beti bat gizarteak Unibertsitateaz duen irudi positiboarekin.

Lan-finkapena eta -sustapena moteldu egin dira, eta hori etsigarria da langileentzat. Gainera, horrek zaildu egiten du erakundearen kide izatearen- eta erantzunkidetasun-sentimendua.

Orobat, desoreka nabarmena dago egin behar den horretan ematen dugun denboraren eta proiektatutakoa eta benetan egindakoa kontatzen eta ebaluatzen ematen dugun denboraren artean. Denbora asko eman behar da egindako lan guztia justifikatzen, eta norberaren burua zalantzan dagoelaren sentazioa etengabea da, eta hori guztia frustragarria da.

Eta, horren ondorioz, askotan, gehiegizko burokraziak ez digu unibertsitatea ikusten uzten. Egunerokotasunak denbora guztia kentzen badigu, ez da erraza nork bere burua altxatu eta osotasuna ikustea. Egia esan, zaila da pentsatzeko denbora hartzea, eta administrazio-prozedurak eta -kargak murriztea, baldin eta, aldi berean, hezkuntza-esparruan lege-aldaketak eta etengabeako aldaketak badaude.



**“Eta hain gutun luzea idatzi badut, laburragoa egiteko astirik izan ez dudalako izan da”**

Blaise Pascal, filosofoa eta matematikaria, Paris, 1623-1662

## **2021-2024 PROGRAMARAKO GAKOAK**

Boloniako Plana hasi eta hamar urtera, berriz pentsa dezakegu eta pentsatu behar dugu nola ekiten diogun unibertsitate-bilakaera horri. Ikasle bakoitzaren prestakuntza integrala bultzatu eta bideratuko duen unibertsitate bat nahi dugu; asko dugu arriskuan, ikasleak gure etorkizuna dira. Nazioarteko eta jakintza adarren arteko lankidetzak funtsezkoak dira prestakuntzan eta ikerkuntzan aurrerapauso kualitatiboak emateko. Ezagutzaren erronkak konplexuak dira, eta horiei arrakastaz aurre egin nahi badiegu, oso garrantzitsua izango da askotariko lantaldeak eratu ahal izatea.


Prestakuntza, ikerketa, transferentzia, ezagutzaren dibulgazioa, kulturaren sustapena, euskara, genero-berdintasuna, politika inklusiboak eta jasangarritasun-politikak gure Unibertsitateak berezkoak dituen misioak dira. Ez dira misio estankoak, lehiakide estatikoak edo bateraezinak, dinamikoak eta osagarriak baizik, eta, hortaz, gure egunerokoan uztartu behar ditugu. Hala, 2015ean Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) onartu zirenean, erreferentzia-esparru globala sortu zen, eta horretan txertatzen dira unibertsitate-jarduerak. Izan ere, UPV/EHUk badu EHUagenda 2030. Nazio Batuen Erakundeak (NBE) onartutako 17 helburuei beste helburu bat gehitu zaie, euskara eta euskal kultura aintzat hartzen dituen, hain zuzen. Bestalde, UNESCOren garapen-programan islatzen denez, kultura funtsezkoa da helburu horiek lortzeko.

Gure Unibertsitateak ikuspegi globala izatea behar dugu, eta pertsona bakoitzak unibertsitate-erakuntzan egiten duen ekarpena proiektu kolektiboan txertatuago egotea. Irakasle eta ikertzaileen eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen karrera profesionalak zaindu eta planifikatu behar ditugu. Epe ertain eta luzera begiratu behar dugu. Langileek etorkizun argia duten lanpostu iraunkorrak behar dituzte; langileek erakundearekiko konpromiso handiagoa izatea ekarriko du horrek.

Burokraziaren kostua txikitzeko gai izan behar dugu, digitalizazioak horretarako ekar ditzakeen abantailak aprobetxatuz gure zeregina egiteko, teknologia berriak erabiltzean beharrezkoak ez diren trabak sortu gabe. Horrek esan nahi du malgutasun edo konfiantza handiagoa behar dugula erabakiak hartzen dituzten organoen diskrezionalitate teknikoan, eta ez dela hain beharrezkoa erabaki guztiak ahalik eta xehetasun txikienarekin barematuta, tasatuta eta araututa egotea, gardentasun eta objektibotasun handiagoa lortzearen alde. Gardentasunaren eta kontuak ematearen eskakizun logikoak eta positiboak bete daitezke eta bete behar dira, prozedura arinagoak, ez hain burokratikoekin eta arreta funtsezkoan jartzen dutenak erabiliz.

**“Pertsona baten adimena neurtzeko, jasan dezakeen  
ziurgabetasun-kantitatea hartzen da kontuan”**

Immanuel Kant, filosofoa eta zientzialaria, Königsberg,  
1724-1804



### ***Ezin dugu bistatik galdu testuingurua, errealitatearen printzipioa.***

Unibertsitate publikoa gara, kontuak emateko prozedurak ditugu eta indarrean dagoen legeria bete behar dugu.

Eusko Jaurlaritzaren azken Unibertsitate Planak Euskal Unibertsitate Sistemaren plangintza estrategikoa eta jarduera eta finantzaketa esparruak zehazten ditu 2022ra arte. Gainera, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2018-2021 aldirako onartutako Plan Estrategikoa dugu. Halaber, unibertsitateko egitura eta organoekiko errespetuan oinarritu behar dugu, gure Unibertsitateak



premia berrietara eta errealitate aldakorrera egokitzeko egin beharreko aldaketak alde batera utzi gabe.

Plan Estrategikoaren ardatzak aintzat hartu eta haietako bakoitzean zehaztu ditugu 2021-2024 aldirako helburuak lortzeko behar diren indar-ideiak.

Nolanahi ere, gogoan izan behar dugu ziurgabetasun handiko une hauetan egokitzeko gaitasun handia behar dugula, erresilientzia handia, eta gure unibertsitate-komunitateak dagoeneko frogatu du hori baduela.

COVID-19ak eragindako osasun- eta ekonomia-testuinguruak agerian jarri duenez, onartu egin behar dugu ziurgabetasuna, eta hura kudeatzen ikasi, etorkizunari heltzeko dugun moduaren arabera. Planak bai, euskarri eta zimendu sendoak baina aldi berean malguak dituztenak, etorkizunera hobeto egokitzeko aukera izan dezagun. Erabakiak hartzeko prozesu arinagoak, bat-batean sortzen diren egoera berrietara egokitzeko prestatutako langileak, eta egoera horien ondoriozko estresa kudeatzeko laguntza.

Jarraian, ardatz nagusiak eta horietako bakoitzaren helburuen laburpena azalduko ditugu.

## PRESTAKUNTZA

**“Zientzietan, irudimena behar dugu bereziki. Dena ez da matematika, eta dena ez da logika hutsa; edertasun eta poesia pixka bat ere bada”**

Maria Tecla Artemisia Montessori, Chiaravalle, 1870-1952



- Oreka izatea graduen eta graduondokoen eskaintzen artean; graduen eskaintza egonkorra eta tokikoa da bereziki, eta graduondokoa, berriz, dinamikoagoa eta nazioartekoagoa. Orobat, ingelesezko masterren eskaintza zabaltzea, beste herrialde batzuetako ikasleak erakartzeko, bai euskarazko lanbide masterren eskaintza ere.
- Egiatzatutako kalitatezko prestakuntza propioa eta etengabea indartzea, gizarte-eskariari erantzuteko, online eskaintza eta euskarazko eskaintza handituz.
- Irakaskuntzaren berrikuntza errealista bultzatzea, egiaztatutako ebidentzian oinarritua, titulu bakoitzaren gaitasunak garatzera bideratua, batez ere hobetzeko marjina duten zeharkako gaitasun jakin batzuk hobetzeko, hala nola, sormena eta lidergoa. Gizarte-erronkekin lotutako prestakuntza integralagoa bultzatu nahi dugu.
- Halaber, funtsezkotzat jotzen dugu titulazioen enplegarritasuna handitzea, eta, horretarako, ingurune sozioekonomikoarekin dituzten harremanak estutu eta ekintzaitza sustatu eta sortuko dugu.

## IKERKETA ETA EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA

**“Egia ez da aldatzen pertsona gehienek hartan  
sinesten dutelako edo sinesten ez dutelako”**

Hipatia Alexandriakoa, matematikaria eta filosofoa,  
355-415 edo 416



- Gure Unibertsitatean garatutako ikerketaren aintzatespen handiagoa lortzea nazioartean.
- Diziplinarteko lankidetzaren areagotzea, eta kanpoko eta nazioarteko aliantzak indartzea.

- Gizartearen kultura-aberastasunean zuzeneko eragina duen ikerkuntza aintzat hartzea eta ikusgai jartzea, enpresekin eta gizarte-erakundeekin kontratuak eta proiektuak egitea sustatuz eta bideratuz.
- Ikerketa erronkak eta Garapen Jasangarrirako gure agenda -EHUagenda 2030- lotzea.
- Berriazko bultzada ematea ikerketa talde gutxi duten edo ikerketa tradizio urria duten baina kultura-aberastasuna sortzen duten eta eratu edo egonkortu behar diren jakintza-arloetan, eta ikertzaile berriei laguntzea.

## KULTURA ETA GIZARTEA

**“Noiz eta gehiago maite,  
orduan eta gehiago daki.  
Noiz eta gehiago jakin,  
orduan eta gehiago maite”**



Joxean Artze, euskal idazlea, olerkaria eta musikaria, Usurbil, 1939-2018,  
UPV/EHUren Urrezko Domina jasotzeko ekitaldian emandako hitzaldian

- Unibertsitatearen konpromisoa hartzea, UPV/EHUren ezagutza eta kultura-ondarea gizarteari hobeto jakinarazteko eta helarazteko.
- UPV/EHU aitzindaria izatea euskal gizartearen kultura zientifiko eta humanistikoaren hobekuntzan; euskarari eta euskal kulturari arreta berezia emanez.
- Erreferentziazko unibertsitatea izatea genero-berdintasunean eta, oro har, ezagutzaren eta prestakuntza handiko giza kapitalaren aprobetxamenduan, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GHJ) lortzeko.
- Unibertsitateak gizarte-kulturaren eta haren produkzio-sarean duen presentzia eta eragina handitzea.

## PERTSONAK

**“Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak, burruka hortan iraungo duten zuhaitz ardaska gazteak”**

Xabier Lete Bergaretxe, idazlea, olerkaria eta abeslaria, Oiartzun, 1944-2010. (Izarren hautsa)



- Lan-baldintza egokiak eta etorkizuna duten lanpostu egonkorak izatea. Giza ingurune kolaboratiboak eta integratzaileak sortzea.
- Irakasle eta ikertzaileen eta AZPren premien urte anitzeko plangintza egitea, eta haien lanbide-karrera sustatzea.
- Langileen batez besteko adina txikitzea.
- Unibertsitate-komunitatearen erantzunkidetasuna, partaidetza eta inplikazioa erabakiak hartzean eta UPV/EHUren proiektuetan; bereziki, gazteenen artean.
- Banakako eta taldeko lanaren prestigioa eta aintzatespena.
- Ikasle bakoitzak zeregin aktiboa eta erantzunkidea izatea bere ikaskuntza-prozesuan.
- Prestakuntza egokitzea, pertsonak jasotzen duten prestakuntza unibertsitatearen misioarekin bat etor dadin.
- Campusak atseginak izatea, eta unibertsitate-bizitza areagotzea.

## GOVERNANTZA ETA BALIABIDEAK

**“Emakume kaskar bat gizon kaskar bat bezain azkar mailaz igotzen denean, orduan iritsiko da berdintasuna”**

Estelle Rosemary Ramey, fisiologoa, Michigan, AEB, 1917-2006



- Bi norabideko komunikazioa, eta enpatikoa, unibertsitateko kargudunen artean eta unibertsitate-komunitatearekin.
- Prozesuen gardentasunaren eta horiek sor dezaketen burokraziaren arteko oreka, eraldaketa digitalaren prozesuaren aurrerapenek eskaintzen duten aukera aprobetxatuz.
- Proiektu estrategikoen garapena oztopa dezaketen arau-oztopoak eta lan zama administratiboak kentzea, interes publikoa edo Unibertsitatearena lortzea bermatzeko beharrezkoak ez direnean.
- Finantzaketa publikoa eta pribatua hobetzea.
- Genero-berdintasuna sustatzea unibertsitateko lidergoan.



## PRESTAKUNTZA

1. Prestakuntza dual zabala, nazioarte mailakoa eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak dituena, euskal gizartearen beharrei erantzungo diena eta kanpo-ebaluazioko erakundeek (Unibasq) aitortutako emaitzak dituena.

**2024an:** Nazioarteko aipamena edota duala duten titulazio gehiago eskaintzea, eta metodologia berritzaileen ezarpena sustatzea, eta, horretarako, titulazio horiek emateaz arduratzen diren irakasle-taldeak prestatzea eta haiei laguntzea.

2. Zeharkako gaitasunei buruzko prestakuntza sustatzea, bereziki sormenari, lidergo-gaitasunari, ekintzailetzari eta kulturartekotasunari, prestakuntza praktikoari eta hizkuntzei dagokienez. Berdinen arteko ikaskuntza-mekanismoak bultzatzea, zeharkako gaitasunak garatzeko.

**2024an:** Berdinen arteko tutoretzako BAT programa (gradu 1. mailako ikasleentzat) eta BUDDY programa (atzerriko ikasleei harrera egiteko) sustatzea eta garatzea.

Gaitasun horien inguruko gogobetetze-emaitzak nabarmen hobetzea eta IKD GAZtE programaren hiru campusetan sendotzea, titulazio desberdinetako ikasleen arteko baterako lana erraztuz.

3. Erronketan oinarritutako ikaskuntza-programa bateratuak garatzea ENLIGHT partzuergoko kide diren unibertsitateekin, ikaslearen mugikortasuna erraztu eta areagotzeko.

**2024an:** Gradu hiru titulazio bateratu ematea, eta, gutxienez, masterreko titulazio bateratu bat; ENLIGHT *Think Tanka* sortzea; Regional Academiesek antolatutako erronketan

oinarritutako *Living Labak* sortzea; gutxienez, erronketan oinarritutako hiru *Short Programme* sortzea; eta ENLIGHTeko *Doctoral Network* delakoa sortzea.

4. Euskampus-Bordele Mugaz Gaindiko Campusa eta atzerriko beste unibertsitate batzuekiko harremanak sendotzea, baita Graduondoko Sare Latinoamerikarra ere.

**2024an: Titulazio bikoitzen eta unibertsitate horiekin antolatutako titulazio bateratuen kopurua handitzea.**

**Doktorego-tesi gehiago antolatzea Graduondoko Sare Latinoamerikarran.**

5. Euskarazko irakaskuntza sendotzea eta horren eskaintza handitzea gradu- eta graduondo-mailetan. Lanbide masterrak euskaraz ikasteko aukera bermatzea.

**2024an: Gradu eta graduondoko ikasketak euskaraz egiten dituzten ikasleen portzentajea handitzea.**

6. Graduetan eta graduondokoetan hirugarren hizkuntza batean ikasteko aukera indartzea eta areagotzea, eta ingelesezko titulazioak sustatzea, atzerriko ikasleak erakartzeko, bereziki ENLIGHT partzuergoan hartutako konpromisoen esparruan.

**2024an: Hirugarren hizkuntza batean gaitasun handia duten egresatuen kopurua handitzea eta titulazio batzuk osorik ingelesez egin daitezen ahalbidetzea.**

**Graduondoko Ikasketen II. Plan Estrategikoa zehaztea eta garatzea.**

7. Etengabeko prestakuntza sustatzea, presentziala zein online, euskaraz eta gaztelaniaz, prestakuntza eskatzen duten gizarte-eragileekin koordinatuta.

**2024an: Euskal ingurune sozioekonomikoko eragileekin lankidetzan titulu propio edo etengabeko prestakuntza-ikastaro gehiago antolatzea. Lankidetzan hobetzea, atxikitako ikastetxeetan emandako prestakuntzan.**

8. Online prestakuntza eleaniztuna sustatzea, arreta berezia jarriz euskarazko, ingelesezko eta frantsesezko prestakuntzan, eCampusaren bidez irakaskuntza-zerbitzuak zabaldua.

**2024an: Onlineko prestakuntza-eskaintza handitzea, euskaraz, ingelesez eta frantsesez.**

9. Ebidentzia egiaztatuko hezkuntza-berrikuntzako erreferenteak izatea.

**2024an: IKDi3 hezkuntza-eredua sendotzea, baita GJHekin konpromisoa duen irakaskuntza-berrikuntzako esparru berria ere.**

10. GJHekin lotutako gradu eta master amaierako lanak bultzatzea, hala nola, genero-berdintasunarekin, euskararekin, euskal kulturarekin, klima-aldaketaren aurkako borrokarekin eta energia berriztagarrien sustapenarekin lotutakoak.

**2024an: Garapen Jasangarrirako Helburuei (GJK) ekarpenak egiten dizkieten lanak nabarmentzea eta sustatzea.**

11. Ikasle guztiei nazioarteko mugikortasuna zabaltzeko eta errazteko ekintza inklusiboak ezartzea: mugikortasun birtualak eta konbinatuak (mugikortasun fisikoa + egonaldi birtuala) eta iraupen laburragoak, eskaera-prozesua sinplifikatuz.

**2024an: Nazioarteko mugikortasuna handitzea, modalitate guztietan.**

12. Ikasleek erabiltzen dituzten tresna informatikoen (GAUR, eGela, BBC, ...) erabilera eguneratzea eta sinplifikatzea, batez ere gailu mugikorretan.

**2024an: Aplikazio informatikoak erabiltzen hasteko eta konfiguratzeko behar den denbora erdira murriztea.**

13. Ikasleen enplegarritasuna areagotzen duten baldintzen hobekuntza sustatzea.

**2024an: UPV/EHUko I. Enplegarritasun Plana ezartzea eta haren jarraipena egitea.**

14. Jarduera ekintzailea eta irakasle eta ikertzaileek eta gure unibertsitateko egresatuek enpresak sortzeko ekimenak koordinatzea eta bultzatzea, bereziki Garapen Jasangarrirako Helburuekin konpromisoa badute.

**2024an:** Ekintzailletza-plataformak bultzatzea, ikasleen, enpresen eta irakasle eta ikertzaileen arteko topaguneak eskainiko dituztenak, eta enpresa- eta gizarte-proiektu berriak sortzea eragingo dutenak.

15. UPV/EHUK ekintzailletzaren arloan eskaintzen dituen zerbitzuak ikasleen eta irakasle eta ikertzaileen artean zabaltzea, eta eskaintza hori indartzea.

**2024an:** Gure Unibertsitateko hiru campusetako enpresa-ekimenak garatzeko prestakuntza-, sentsibilizazio- eta laguntza-programetan parte hartzen duten ikasleen kopurua handitzea.

16. Unibertsitatea-Enpresa gelen sarea sendotzea eta zabaltzea.

**2024an:** Unibertsitatea-Enpresa gelen funtzionamenduaren ebaluazio estrategikoa egitea eta hobekuntza-ekintzak gauzatzea.

## **IKERKUNTZA ETA EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA**

1. II. Ikerketa Planaren jarraipena egitea eta beste plan bat prestatzea.

**2024an:** Shanghaiko ranking-eko posizioari (lehen 400 unibertsitateen artean) eustea.

2. Bikaintasuneko ikerketa mantentzea eta bultzatzea, nazioartera begira, jakintza-arlo guztietan.

**2024an:** Urtean defendatutako doktorego-tesien kopuruari eustea, bereziki nazioarteko tesien kasuan, eta kalitate zientifiko handiko argitalpen gehiago argitaratzea.

Langileen mugikortasuna handitzea eta ikerketa-proiektu lehiakorak ugaritzea.

3. Ikerketari berriazko bultzada ematea ikerketa-talde gutxi duten edo ikerketa-tradizio urria duten baina kultura aberastasuna sortzen duten eta eratu edo egonkortu behar diren jakintza-arloetan.

**2024an:** Kalitate egiaztatuko zeharkako argitalpen baten edizioa sortzea, arlo horiek nazioartean ezagutzera emateko.

4. Sortzen ari diren taldeei laguntzea, bai eta ikertzaile berriei ere, hasieran maila handiagoan lehiakorrak izateko aukera gutxi baitituzte, eta arreta berezia jartzea ikerketa-tradizio txikiko arloetan.

**2024an:** Ikertzaile gazteek zuzendutako taldeen eta proiektuen kopurua handitzea.

5. Diziplinarteko lankidetzak eragiten duten erronka eta galdera konplexuen inguruko ikerketa antolatua sustatzea.

**2024an:** Hainbat diziplinatako ikertzaileek osatutako ikerketa taldeen kopurua handitzea. Inpaktu handiko argitalpen gehiago argitaratzea.

6. EHUagenda 2030 plana garatzen jarraitzea, eta hura indartzea eta egokitzea, Unibertsitateak sortutako eta transferitutako ezagutzari erreparatuta.

**2024an:** EHUagenda 2030en jasotako helburuak betetzea eta ENLIGHTek Garapen Jasangarrirako Helburuen arloan dituen erronkak agenda horretan jasotzea.

7. EHUagenda 2030en GJH 14 txertatzea: ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak kontserbatzea eta modu iraunkorrean erabiltzea, garapena jasangarria izan dadin.

**2024an:** Ikerkuntza eta diziplina anitzeko prestakuntza agerian jartzea eta handitzea, itsasoa kontserbatzeko GJH14 helburuari dagokionez.

8. GJHak lortzen zuzenean laguntzeko baliabide gisa kultura berariaz gehitzea, UNESCOk egindako hausnarketan ildotik.

**2024an:** Diziplina anitzeko ikerketa sustatzea, Garapen Jasangarrirako Helburuei begira. Lehen aipatutako helburuak garatzen laguntzen duten ikerketa eta transferentzia gehiago nabarmentzea, jakintza-arloen arabera.



9. Doktoregoaren balio erantsia bultzatzea sektore sozioekonomikoan eta kulturalen.

**2024an: Kanpoko erakundeekiko harremana indartzea, haiekin lankidetzan tesiak egiteko.**

10. Euskararen erabilera handitzea ikerketan, transferentzian eta dibulgazioan.

**2024an: Euskarazko tesien eta nazioarteko euskarazko tesien kopurua handitzea. Euskarazko eztabaida- eta dibulgazio-foroak ugaritzea.**

11. Ikerketarako eta ikerketa bideratzeko azpiegitura, gune eta zerbitzuak hobetzea. Kontratuak egitean arinago jokatzea.

**2024an: Ikertzaileen kudeaketa zientifikoa arinagoa izan dadin lortzea. Zentroen arteko lankidetzak-espazioak sortzea, bereziki ENLIGHT proiektuari dagokionez.**

**Azpiegiturak (zientifikoak, biosanitarioak, teknologikoak eta kultura sortzekoak) sendotzea. Abian diren proiektuak burutzea, eta ikerketa- eta transferentzia-azpiegitura berriak sustatzea.**

12. Unibertsitatearentzat itzulkinak izango dituzten kontratuak enpresekin egiten erraztea, eta jabetza industrialeko lizentziak sustatzea, bereziki Europakoak eta nazioartekoak.

**2024an: 1.300 kontratu baino gehiago sinatzea eta 10 milioi euro baino gehiago lortzea I+Gn eta zerbitzu teknologikoetan.**

**Patenteen eta jabetza industrialeko beste lizentzia batzuen kopurua handitzea, bereziki Europakoak eta nazioartekoak.**

13. Transferentzia-seiurtekoak bultzatzea.

**2024an: Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen transferentzia-seiurtekoen kopurua handitzea.**

## **KULTURA ETA GIZARTEA**

1. Webgunea eta informazio publikoa hobetzea. Marka-irudia sendotzea.

**2024an: Webgune berriua eta irisgarria, unibertsitatetik kanpoko zein barruko kolektiboek eroso erabiltzeko diseinatua.**

2. Estrategia komunikatibo eta mediatiko eraginkorra garatzea, gizarteari ezagutzera emateko gure Unibertsitateak hiru lurralde historikoetan izan dituen lorpenak.

**2024an: UPV/EHUrekin lotutako albisteen urteko inpaktu mediatikoei buruzko azterlan kuantitatibo eta kualitatiboa egitea. UPV/EHUren ezagutzari eta ospeari buruzko azterlana egitea.**

**Komunikazio Bulegoa unibertsitatearen nazioartekotze-helburu berrietara eta ekarpen sozialera hobeto egokitzea.**

3. EHUgune eta haren jarduerak bultzatzea hiru campusetan, unibertsitatearen eta gizartearen arteko eztabaida- eta lotura-gune gisa.

**2024an: Hitzaldiak eta eztabaida-mintegiak egitea campus bakoitzean.**

4. EHUalumni sarea sustatzea, eta Mentoring, Enbaxadore eta Cicerone programak sendotzea.

**2024an: EHUalumni sarearen diagnostikoa eta sustapen-plana egitea, diaspora akademikoan arreta berezia jarritz.**

5. Graduon eta graduondokoen berri emateko eta haietara ikasleak erakartzeko estrategia hobetzea, UPV/EHUko trebakuntzaren balio bereizgarria agerian jarritz, eta unibertsitate aurreko ikasleen orientazioa lehenestea.

**2024an: Presentzia handiagoa izatea unibertsitate-orientazioko azoketan eta ate irekien jardunaldietan, eta %20 handitzea unibertsitate aurreko zentroetara egiten diren bisiten kopurua.**

6. Bi norabideko akordioak ezartzea unibertsitate-prestakuntzaren eta Lanbide Heziketaren artean.

**2024an: Lankidetzak-hitzarmenak sinatzea Lanbide Heziketako ikastetxeekin.**

7. Esperientzia Gela prestakuntza-programak berrikustea, gizartearen eskariari erantzuteko.

**2024an: Esperientzia Geletan interesa duten talde edo elkarteekin harremanak estutzea, haien itzaropenak hobeto asetzeko.**

8. Ikasleen, irakasle eta ikertzaileen eta AZPkoen gizarte-ekimena eta konpromiso zibikoa babestea, sustatzea, aintzatestea eta zabaltzea.

**2024an: Unibertsitate-kolektiboen (ikasleak, AZPkoak, eta irakasle eta ikertzaileak) eta ingurune sozioekonomikoko erakundeen arteko elkarlanerako programak sustatzea, Garapen Jasangarrirako Helburuak aintzat harturik.**

9. Ikasteko aukerak hobetzen dituzten programak bultzatzea, gizarte-egoera ahula, zailtasun ekonomikoak, hezkuntza-premia bereziak edo bestelako premiak dituzten kolektiboetan.

**2024an: III. Inklusio Planaren jarraipena egitea eta beste plan bat egitea.**

10. Jarduera akademiko guztietan ingurumen-eragina murriztea, eta, horretarako, klima-aldaketarekiko kontzientziazatzen eta hura geldiarazteko ohitura berriak hartzen laguntzea.

**2024an: Inprimatzen diren agirien kopurua % 50 murriztea eta CO2-aren isurpen-tasa txikiagoak dituzten garraiobideen erabilera sustatzea.**

11. Gizartean genero-berdintasunerako politikak diseinatzen eta aztertzen laguntzea, eta politika horiek unibertsitatean bertan aplikatzea.

**2024an: III. Berdintasun Planaren jarraipena egitea eta beste plan bat egitea.**

Genero-berdintasunari buruzko foroetan edo azterlanetan parte-hartzea, eta horiek antolatzea; bereziki, emakumeen lidergoa eta STEM titulazioen ezagutza ez-alboratua bultzatuz.

12. Gure unibertsitatearen lidergoa indartzea, ezagutza eta kultura sortzeko eta transferitzeko eragile gisa, bai eta euskal gizartean iritzi jantzia sustatzeko eragile gisa ere.

**2024an: Lan- eta eztabaida-talde bat sortzea, UPV/EHUk kultura sortzeko eta zabaltzeko lehentasunezko ildoak eta gidalerroak finkatzeko, eta horiek martxan jartzeko.**

13. UPV/EHUren kultura-ondarea zaintzea, sustatzea eta zabaltzea.

**2024an: Kultura-trukerako guneak sortzea hiru campusetan.**

14. Unibertsitateko campusetan euskararen eta euskal kulturaren erabilera indartzea, kantitatean eta kalitatean, eta gure hizkuntzaren eta kulturaren nazioarteko ezagutza areagotzea, bisitarien bidez.

**2024an: Euskararen III. Plan Zuzentzailearen (2018-2022) jarraipena egitea eta beste plan bat egitea.**

**Euskarazko ikastaroen egungo eskaintza handitzea ikasle bisitariarentzat, eta hiru campusetan euskarazko eta euskal kulturari buruzko dibulgazio-ekitaldi eta eztabaida-foro gehiago antolatzea.**

15. Unibertsitateak erakunde publikoekin dituen harremanak indartzea, eta haiekiko irudia ere bai.

**2024an: Lankidetzak-hitzarmenak sinatzea edo hobetzea hiru foru-aldundiekin eta lurralde historiko bakoitzean unibertsitatearekin lotura duten udalekin, besteak beste, bai eta beste erakunde batzuekin ere (Eustat, Emakunde, Arartekoa, Osakidetza eta abar).**

16. Unibertsitatearen eta lurralde historiko bakoitzeko sare sozioekonomikoaren eta kulturalaren arteko lotura sendotzea, eta lurralde historiko bakoitzak inplikazio handiagoa izatea prestakuntza-, kultura- eta transferentzia-programetan.

**2024an: Lankidetzak-hitzarmenak sinatzea lurralde historiko bakoitzeko eragile sozioekonomikoekin eta gizarte-erakundeekin sarearekin.**

17. Nazioarteko harreman instituzionalak indartzea, bereziki Euskadi-Akitania aliantzen eta ENLIGHT partzuergoaren esparruan.

**2024an: Unibertsitateen arteko lankidetzak gehiago ezartzea, administrazio-trabak ahalik eta gehien murriztuta.**

## **PERTSONAK**

1. Urte anitzeko plangintza ahalbidetzea, bai sailtako irakaskuntza- eta ikerketa-baliabideen kasuan, bai unibertsitateko antolakuntza- eta ikasketa-unitateetako administrazio eta zerbitzuetako langileen baliabide-beharren kasuan, lanpostuen egonkortasuna sustatzeko.

**2024an: Erreferentziazko txantiloak onartzea, bai irakasle eta ikertzaileentzat, bai AZPkoentzat.**

2. AZPkoen eta irakasle eta ikertzaileen lanpostuen zerrendak egokitzea, digitalizazioak eta unibertsitatearen helburu estrategikoek ondorioztatutako premia berrietara.

**2024an: AZPkoen lanpostuen zerrendetan uztartzea langileen itxaropenak eta UPV/EHUren antolaketa-egituraren hobekuntzak.**

Sailtako irakasle eta ikertzaileen berariazko plantilla-plana egitea, irakaskuntza- eta ikerketa-premiei eta epe ertainerako proiektioari erantzuteko.

3. Karrera profesionala sustatzea, lanpostu iraunkorrak eta erakargarriak zehaztuz.

**2024an: AZPkoen behin-behinekotasunaren indizea %10etik behera jaitea. Egiturazko lanpostuak finkatzea eta lan-eskaintza publikoak (LEP) egitea.**

Plaza huts bat betetzen duen irakasle edo ikertzaile akreditatua egonkortzeko itxaronaldiak ahal den neurrian murriztea.



4. Ikertzaileen figurak garatzea eta finkatzea, ikerketa-taldeentzako laguntza gisa.

**2024an: Figura horiek irakasle eta ikertzaileen lanpostuen zerrendan sartzea, eta haien funtzioak hobeto argitzea.**

5. Karrera profesionalaren hasieran, barne-komunikazioan eta pertsoneri eguneroko zereginetan eragiten dieten araudi- edo antolaketa-aldaketetan laguntza hobea ematea.

**2024an: Arreta eta prestakuntza hobea ematea, bai irakasle eta ikertzaile berriei, bai unibertsitatean lanean hasi berri diren administrazio eta zerbitzuetako langileei.**

6. Irakasle eta ikertzaileen prestakuntza hobetzea, irakaskuntza-metodologiak eraldaketa digitalaren arora eta diseinu unibertsalera egokitzeko.

**2024an: UIPRE ikastaroak eguneratzea, eraldaketa digitala eta lan-ingurune desberdinekin bateragarriak diren tresnen erabilera kontuan hartuta.**

7. Administrazio eta zerbitzuetako langileei prestakuntza gehiago ematea eta prestakuntza horretarako sarbidea erraztea, beren lan-jarduera hobetu eta egokitu dezaten; bereziki, unibertsitate osoaren eraldaketa digitalera egokitu dezaten.

**2024an: Langile guztiei beharrezko gaitasun digitalak ematea, beren eginkizunak lan-ingurune guztietan behar bezala egin ahal izateko.**

8. Lan-bizitza hobetuko duten planak bultzatzea, unibertsitateko langile motibatuagoak eta osasuntsuagoak izateko. Arreta berezia jartzea kontziliazio-neurrietan eta telelanaren planaren egokitzapenean.

**2024an: Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak dimentsio egokiak izatea.**

**Norberaren eta taldearen osasuna zaintzeko plana egitea, arreta berezia jarrita bereziki sentikorrak diren pertsonengan, eta istripuen eta gaixotasunen prebentzioan.**

**Lan-baldintzak berrikustea, zerbitzu publikoko erakunde bateko lana kontziliazioarekin eta telelanarekin uztartzea ahalbidetzeko.**

9. Kolektibo bakoitzarentzat beharrezkoak diren aplikazio informatikoen erabilera erraztea.

**2024an: GAUR, UXXI edo beste atari edo aplikazio batzuen bidez kudeaketak egiteko behar den denbora erdira murriztea.**

10. Unibertsitateko jarduera guztietan euskararen erabilera normalizatua ahalbidetzea eta bultzatzea, eta ofizialak ez diren hizkuntzen, bereziki ingelesaren, ezagutza-maila zabaltzea.

**2024an: Elebidunak diren eta ingeleseko profila duten irakasle eta ikertzaileen eta AZPko kideen kopurua handitzea.**

11. Unibertsitate-komunitate osoan, GJHei ekarpena egitea zeharkako irizpidea duten lan egiteko, ikasteko eta bizitzeko moduak sustatzea, eta ekarpena egiten dutenak publikoki aintzatestea.

**2024an: GJHei egindako ekarpenak biltzea eta agerian jartzea, eta kolektibo guztiek ekarpenak egin ditzaten sustatzea; hau da, irakasle eta ikertzaileek, administrazio eta zerbitzuetako langileek eta ikasleek.**

12. Proiektu kolektiboak eta biltzeko, eztabaidatzeko eta elkarrekin ekarpenak egiteko guneak sustatzea, unibertsitatea hobetzeko, bai eta unibertsitateak ikasleen, administrazio eta zerbitzuetako langileen, eta irakasle eta ikertzaileen artean duen gizarte-proiektzioa.

**2024an: Unibertsitatearentzat interesgarriak diren gaiak garatzeko eta ezartzeko lantaldeak eratzea, eta haietan hiru kolektiboetako ordezkariak egotea.**

13. Unibertsitatean egindako lana gehiago aintzatestea eta eskertzea.

**2024an: Kolektiboen arteko barne-komunikazio efizienteagoa eta eraginkorragoa sustatzea. Banakako eta taldeko emaitza onen komunikazioa eta barne- eta kanpo-mailako aintzatespena hobetzea.**

14. Kolektibo guztiek –baita egresatuek ere– unibertsitatearekiko duten identitate- eta hurbiltasun-sentimendua indartzea. Lan-baldintza egokiak ezartzea giza ingurune kolaboratibo eta integratzaileetan.

**2024an:** Langileek erakundearekin duten gogobetetasuna hobetzea, "Pertsonak" ardatz honetan jasotako ekintzak eginez.

Zentroekin bat etorriz, ikasle berriei –bereziki UPV/EHUra beste unibertsitate batekin hitzartutako mugikortasun-programa baten bidez iristen direnei– harrera edo ongi etorria egiteko prozedura berritzea.

15. Aldezlearen figura sustatzea, unibertsitate-jarduerarekin lotutako arazoak eta gatazkak maila guztietan prebenitzeko eta konpontzeko bide gisa, modu alternatibo gisa, aurkaritzarik gabe.

**2024an:** Bitartekaritzan oinarritutako funtzioak indartzea eta aurkaritzakoak ez diren prozedurak sortzea, unibertsitateko pertsonen eta/edo kolektiboen artean sor daitezkeen gatazkak konpontzeko bide gisa.

## **GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK**

1. Bi norabideko komunikazioa gauzatzea, enpatiaz, unibertsitateko kargudunen eta unibertsitate-komunitatearen artean, campusetako zentro guztiekin eta sail guztiekin harremanak sendotuz.

**2024an:** Zentroetara –eta UPV/EHUri atxikitako zentroetara– bisita ofizialak egitea, eta aldizka bilerak egitea zentroetako zuzendariekin, sailtako zuzendariekin, ikerketa-taldeekin eta Ikasleen Kontseiluarekin.

2. Unibertsitateko kolektibo guztiek gobernantza-estrategietan parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatzea.

**2024an:** Langileek eta ikasleek UPV/EHUrekiko duten kidesun-sentimendua hobetzea.

3. 2019-2022 Unibertsitate Planaren azken bi urteak eraginkortasunez gauzatzea. Eusko Jaurlaritzarekin modu aktiboan negoziatzea gure unibertsitatearen dimentsiorako egokia den azpiegitura programa bat.

**2024an: UPV/EHUren beharrei erantzungo dien Azpiegitura Plan bat onartzea, gizarteari egiten dion ekarpenarekin bat etorritz.**

4. Finantzaketa publikoa eta pribatua hobetzea. Funts publikoen erabilera eraginkorra sustatzea, eta unibertsitatearen garapenean lagundu nahi duten pertsona, enpresa edo erakundeen funts berriak erakartzea.

**2024an: Mezenasgo-programa bat onartzea eta finantzaketa pribatua nabarmen handitzea.**

5. Erabaki estrategikoak hartzen lagunduko duen kontabilitate analitikoa ezartzea. Horrenbestez, errazagoa izango da baliabide ekonomikoen erabileraren eraginkortasuna neurtzea eta helburuen betetze-maila ebaluatzea.

**2024an: Kontabilitate analitikoan eta urteko txostenetan oinarritutako sistema ezartzea, gastuaren eta kontabilitate-sistemaren eraginkortasuna ebaluatzeko.**

6. Hobeto ematea hartutako arauzko neurrien berri, aldez aurretik parte hartzea ahalbidetuz eta neurri horien laburpen exekutiboa eginez, errazago irakurri eta uler daitezten.

**2024an: Onartutako arauen % 80ek, gutxienez, erraz irakurriko den laburpen exekutibo bat izango du erantsita.**

7. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioak betetzea: beharra, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

**2024an: Erregelamenduzko arau orokorren % 80tan, gutxienez, kontsulta publikoaren izapidea egingo da, onartzeko aurkeztu aurretik.**

8. Efizienteak edo proportzionalak ez diren arauak ezabatzea, haien helburu alortzeko administrazio-karga garestiak eta alferrikakoak baitira, eta, gainera, proiektu edo helburu estrategikoen, hala nola, ENLIGHTen, garapena oztopa baitezakete.

**2024an: Administrazio-kargak minimizatzeko aginduetan oinarrituta indarrean dagoen berrikusitako araudia.**

9. Administrazio elektronikoaren garapena osatzea, kudeaketa-prozesu guztiak berriz diseinatu unibertsitate digitalizatuaren ikuspegitik, administrazio-izapideak sinplifikatuz eta arinduz.

**2024an: Barne-izapide eta -prozesu guztiak modu digitalean eta telematikoan egitea, eta legezkoak edo behar-beharrezkoak ez diren oztopoak kentzea.**

10. Administrazio eta zerbitzuetako langileek, ikasleek, eta irakasle eta ikertzaileek telematikoki egiten dituzten izapideetarako behar den denbora murriztea. Aplikazioetan sartzeko eta haiek erabiltzeko interfazeak sinplifikatzea, eta erabiltzaileen premia teknologikoetara egokitzea.

**2024an: Itxaronaldiak txikitzea jarduera akademikoari datxekion prozesuetan; besteak beste, ikasketa-planak aldatzeko ebazpenetan, matrikulazioan, baimen-eskaeretan, dietak kobratzean eta fakturak ordaintzean.**

11. UPV/EHUko datu-unitate bat sortzea eta horretarako langile kualifikatuak hautatzea, jarduera akademikoa etengabe monitorizatu eta informazio-iturri guztiak koordina ditzaten.

**2024an: Bulegoa eratzea eta adierazleak sortzea, datuekin hornitu beharreko rankingetan ager dadin unibertsitatea.**

12. Zentroei eta sailei berrantolaketa-prozesuetan laguntzeko behar diren neurriak hartzea, ikasleen, administrazio eta zerbitzuetako langileen, eta irakasle eta ikertzaileen antzeko ratioak egon daitezen zentro eta sail guztietan.

**2024an: Zentroyen eta sailen berrantolaketa ahalik eta eraginkorrena eta hoberena ezartzea.**

13. Mugikortasuna hobetzea eta azpiegitura fisikoak eta teknologikoak egokitzea, COVID-19ak eragindako krisiaren testuinguruan, irisgarritasuna hobetzeko, betiere, aurrekontu-erabilgarritasuna kontuan hartuta. UPV/EHUko eraikinen azpiegitura-plan bat diseinatzea, beharrezkoak diren berrikuntzak jasotzeko, eraikinen prebentziozko mantentze-lanei lehentasuna emanez.

2024an: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen eraikin berria egiteko proiektua garatzea, 2024-2025 ikasturtean erabiltzen hasteko.

Azpiegiturak (zientifikoak, biosanitarioak, teknologikoak eta kultura sortzekoak) sendotzea. Abian diren proiektuak burutzea, eta ikerketa- eta transferentzia-azpiegitura berriak sustatzea.

14. Unibertsitateko egoitzetako plazen eskaintzaren eta eskariaren arteko erlazioa hobetzea.

2024an: Plazen kopurua % 15 handitzea.



**[evaferreira.eus](http://evaferreira.eus)**